

Gaitu proiektua

Adimen artifizialak euskaraz egin dezan

Erronka berri bat dugu: makinek gure hizkuntza ulertu eta hitz egin dezaten, lehenago irakatsi egin behar diegu. Horretarako, milaka ahots behar ditugu, milaka grabazio ordu euskaraz.

Zure ahotsa garrantzitsua da

Ahots asko eta askotarikoak behar ditugu: adin tarte, genero eta mota guztietakoak. Eta zurea ere bai.

Guztion artean sortzen ari garen ahotsen datu-basea, gero enpresa guztiek erabili ahal izango dute euskarazko tresna eta aplikazio berriak sortzeko, euskaldun guztion onurarako.


Horretarako, sartu eta grabatu mesedez 30-300 esaldi inguru . Oso erraza da.

Ekarpen polita egingo diogu gure hizkuntzaren eta kulturaren garapenari.

Klikatu esteka honetan gure hizkuntzaren aldeko ekimen honetan parte hartzen hasteko.


<https://commonvoice.mozilla.org/eu>

Sakatu hemen hasteko.




Jarraian, irakurri eta grabatu beharko dituzun esaldiak agertzen diren pantailara pasatuko zara. Bost esaldi dira.


Prest zaudenean, sakatu hemen grabatzen hasteko. Behin esaldia esanda, sakatu berriro grabazioa gelditzeko. Esaldia automatikoki erregistratuta geratzen da eta hurrengo esaldira pasatzen da. Esaldi bakoitzean, grabatzeko eta gelditzeko ikono honetan klik egiteko eragiketa errepikatu beharko duzu.




Egin duzun grabazioarekin gustura ez bazaude, ikono honetan klik egin eta nahi adina aldiz erreperatatu dezakezu.



Bost esaldien grabazioa amaitzen duzunean, sakatu hemen bidaltzeko.



Mezu hori pantailan agertu ondoren, zure ahotsa grabatuta eta bidalita geratuko da.



Anima zaitetz hemen sakatuz grabatzen jarraitzera!!!

